

1/2019 FORU ARAUA, martxoaren 20koa, gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte-balioaren gaineko Zergarena. (BOB Apirilaren 4koa)

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2019ko martxoaren 20ko Osoko Bilkuran onartu dutela 1/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte-balioaren gaineko zergarena, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

ATARIKOA

Ekonomia Itunean berriki egin den aldaketa (Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2017ko uztailaren 19ko bileran onartua) 2017ko abenduaren 28ko 10/2017 Legearen bidez gauzatu zen, eta Bizkaiko Batzar Nagusiek 2018ko martxoaren 21eko 1/2018 Foru Arauaren bitartez berretsi zuten.

Zenbait tributuren itun-baldintzei eragiten dieten aldaketez gainera, hala nola lotura- puntuen burutzeari eta eguneraketari dagozkionak, eskumen-banaketak sinplifikatzeko neurriak eta tributuo-administrazio desberdinen arteko koordinazio eta lankidetzari dagozkionak, erabaki horrek halaber ekarri du berekin gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte-balioaren gaineko zergaren ituntzea. Indarrean dagoen Ekonomia Itunaren 23 sexies artikuluan jasotzen da, hain zuzen ere, ituntze hori, eta, horrenbestez, Estatuak ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira tributuo hori eraentzeko. Hala, lurralde historikoei ematen zaizkie zergaren konturako ordainketak ordainarazteko eta galdatzeko eskumen batzuk, kontuan hartuta non dagoen kokaturik hidrokarburo-hobien ustiapen-kontzesioaren erreferentziako perimetroaren barruko eremua, eta halaber ematen zaie eskumena aitortpen- eta sarrera-ereduak onesteko.

Zergapetze-mota berri hori eta haren erregulazioa gure tributuo-sistemari eranstea, foru-arau hau eman behar da, hala zehazteko zer irizpideren arabera dagokion eskumen hori Bizkaiko Foru Aldundiari, erreferentzia gisa harturik Euskal Autonomia Erkidegoari eskumenak esleitzeko Ekonomia Itunen jasotzen diren lotura-puntuak.

Zerga hori 8/2015 Legearen bidez sortu zen (8/2015 Legea maiatzaren 21ekoa, Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatu eta hidrokarburoen esplorazio, ikerketa eta ustiaketarekin loturiko hainbat zerga-neurri eta zerga-neurri ez direnak arautzen dituen), eta zuzeneko eta benetako izaera duen zerga bat da, zeinak zergapetzen baitu gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzketa, hidrokarburo hobien ustiapen-kontzesioetan.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautapenari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatua betetzeko, memoria ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio foru-arau honi, bai eta genero-eraginaren ebaluazioaren gaineko txostena ere.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

1. artikulua. Izaera eta xede-eremua.

1. Gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte-balioaren gaineko zerga zuzeneko eta benetako izaera duen tributua da, eta zergaren aplikazio eremuan erauzitako gasaren,

petrolioaren eta kondentsatuen jabari publikoko produktuen balioa zergapetzen du, hidrokarburoen lehenengo arazketa eta bereizketa tratamendua egin ostean.

2. Zerga horren xede-eremua Hidrokarburoen Sektoreko urriaren 7ko 34/1998 Legean araututako hidrokarbuero likidoak eta gaseosoak dira.

2. artikulua. Araudi aplikagarria.

1. Ekonomia Ituneko 23 sexies artikuluan xedatutakoaren esparruan, zerga hori foru- arau honetan eta berau garatzen duten xedapenetan xedatutakoa kontuan hartuta galdutako da.
2. Foru-arau honetan xedatutakoa gorabehera, indarrean jarraituko du Espainiako barne-ordenamenduaren parte bihurtu diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoak.

3. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio zerga ordainaraztea baldin eta Bizkaiko Lurralde Historikoan badago 8/2015 Legearen 22. artikulua aipatzen duen hobiaren ustiapen-kontzesioaren erreferentziako perimetroaren barruko azalera. 2015eko maiatzaren 21eko 8/2015 Legeak, Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatu, eta hidrokarburoen esplorazio, ikerketa eta ustiaketarekin loturiko hainbat zerga-neurri eta zerga-neurri ez direnak arautzen ditu.
2. Baldin eta aurreko zenbakian aipatzen den perimetroaren barruk azalera lurralde erkide eta euskaldunean badago, bi administrazioen artean banatuko da proportzionalki zerga-ordainarazpena.

4. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Hidrokarburoen Sektoreko 1998ko urriaren 7ko 34/1998 Legearen II. tituluan aipatzen diren hidrokarbuero hobien ustiapen-kontzesioetako gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erazketa izango da zerga-egitatea.
2. Legean ageri diren eta berezko izaera duten kontzeptuei eta terminoei dagokienez, hidrokarburoei buruzko Estatuko araudian xedatutakoa beteko da, legean bertan definitutakoenen kasuan izan ezik.

5. artikulua. Zergadunak.

Zerga honen zergadunak dira pertsona fisikoak, juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34.3 artikuluan adierazitako erakundeak, baldin eta aurreko artikuluan aipatzen diren jarduerak egiten badituzte.

6. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zergaren zerga-oinarria gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erazketaren balioak eratuko du.

Erazketaren balioa, berriz, honako hau izango da: zergaldian zehar erazi diren eta zergaren xede-eremuan sarturik dauden produktuen balioaren batura, lehenengo arazketa eta bereizketa tratamendua egin ostean.

Gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen kantitatea zehazteko, 2015eko maiatzaren 21eko 8/2015 Legearen 8. artikuluan aipatzen diren hidrokarburoen erazketa neurtzeko gailuetan neurtutako bolumena hartu beharko da kontuan. 8/2015 Legeak, Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatu, eta hidrokarburoen esplorazio, ikerketa eta ustiaketarekin loturiko hainbat zerga-neurri eta zerga-neurri ez direnak arautzen ditu. Neurketa horrek bat etorri beharko du putzuaren buruko bolumenarekin, operadoreak berak gauzatuko duen arazketa eta bereizketa prozesuaren barruan erretiratzen zaizkion ur, CO₂ eta bestelako substantzien kantitateak osoko bolumenetik kendu ondoren.

Horretarako, honela kalkulatu da erauzketaren balioa: eskumenak dituen organoaren aginduz onartutako erreferentzia-prezioari aplikatuko zaio erauzi den produktuaren osoko bolumena. Bolumen hori honela adieraziko da:

- a) Petrolio eta kondentsatuak: upel petroliotan; upelaren edukiera eta neurtzeko baldintzak eskumena duen organoak zehaztuko ditu.
- b) Gas naturala: metro kubikotan, zero gradu zentigraduko hozberoan eta bar bateko presioan neurtuta.

Produktu bakoitzaren erreferentzia-prezioa zergaldi bakoitzeko hamabi hiletako prezioen batezbesteko aritmetikoa kalkulatzearen emaitza izango da. Hileko prezio horiek kalkulatzeko produktu bakoitzak ordezkagarritasun handieneko merkatuetan duen kotizazioa hartuko da erreferentzia gisa.

2. Foru-arau honen 4. artikuluan adierazitako jarduerak gauzaten dituzten ustiapen-kontzesio guztietarako erabakiko da aurreko zenbakian zehaztutako zerga-oinarria.

7. artikulua. Zergaldia eta zergaren sortzapena.

1. Zergaldia urte naturalarekin bat etorriko da, non eta ustiapen-kontzesioaren jarduera ez den eteten, azken kasu honetan, jarduera eten den egunean amaituko baita zergaldia ere.
2. Zergaldiaren azkeneko egunean sortuko da zerga.

8. artikulua. Karga-eskala.

1. Ekoizpena petrolio eta kondentsatuak direnean, ondorengo karga-eskalaren arabera galdatuko da zerga:

Zergaldian erauzitako upelak	Zerga-tasa	
	(%) Lehorreko ustiapena	(%) Itsaspeko ustiapena
365.000 arte	2	1
365.001etik 3.650.000ra arte	6	5
3.650.000 baino gehiago	8	7

2. Gasaren kasuan, berriz, ondorengo karga-eskalaren arabera galdatuko da zerga:

Zerga-tasa			
Zergaldian erauzitako bolumena	Itsaspeko ustiapena		Lehorreko ustiapena
	Ohikoa (%)	Ohikoa (%)	Ez-ohikoa (%)
32.850.000 m ³ -ra arte	1	3	1
32.850.000 m ³ -tik 164.250.000 m ³ -ra arte	3	4	3
164.250.000 m ³ baino gehiago	4	5	4

Horretarako, erauzketa ez-ohikotzat hartuko da alde zuzenetik bolumen handiko haustura hidraulikoko teknikak aplikatzea eskatzen duena, hau da, putzu batean 1.000 m³ edo gehiago ur injektatzea haustura fase bakoitzeko, edo 10.000 m³ edo gehiago ur injektatzea haustura prozesu guztian zehar; aldiz, ohikoa iritziko zaio gainerako teknikak erabiltzearen bidez egiten den erauzketari.

9. artikulua. Kuota osoa.

Zerga-oinarriari aurreko artikuluan ezarritako karga-eskala aplikatzearen emaitza gisa ateratzen den kantitatea izango da kuota osoa.

10. artikulua. Likidazioa eta ordainketa.

1. Zergadunek, zerga sortu eta hurrengo urteko apirilaren lehenengo 25 egun naturalen barruan, zergaren autolikidazioa egin eta kuota ordaintzeko obligazioa izango dute, Ogasun eta Finantza Saileko titularrak ezartzen dituen arau eta ereduekin bat.

Zerga sortu den urteko urriaren lehenengo 25 egun naturalen barruan, zergadunek ordainketa zatikatu bat egin beharko dute abian den zergaldiari dagokion likidazioaren kontura, Ogasun eta Finantza Saileko titularrak ezartzen dituen arau eta ereduekin bat.

Ordainketa zatikatua kalkulatzeko oinarria urte natural bakoitzaren lehenengo sei hiletako erauzketaren balioaren arabera zehaztuko da, 6. artikuluan esandako balioa erabakitzeke ezarritako arauak eta eskumena duen organoak ondorio horietarako onartzen duen erreferentzia-prezioa aplikatuta.

Produktu bakoitzaren erreferentzia-prezioa urteko lehenengo sei hiletako prezioen batezbesteko aritmetikoa kalkulatzeko emaitza izango da. Hileko prezio horiek kalkulatzeko produktu bakoitzak ordezkagarritasun handieneko merkatuetan duen kotizazioa hartuko da erreferentzia gisa.

Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa aurreko paragrafoan aurreikusitako oinarriari foru- arau honen 8. artikuluan jasotako dagokion karga-eskala aplikatzearen emaitza gisa ateratzen dena izango da.

11. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan xedatutakoa beteko da foru arau hau ez betetzegatik egiten diren arau-haustek kalifikatzeko eta zehapenak ezartzeko.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantza Saileko titularrak emango dituzte foru-arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean foru- arau hau, eta 2017ko abenduaren 30etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bilbon, 2019ko martxoaren 20an.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,

KOLDO MEDIAVILLA AMARIKA

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANA OTADUI BITERI